

Janzkera

Kurtsoa: 4

Kreditu kop.: 3

Deskribatzaileak:

- Aktorearen gorputzak, aurpegiak eta jantziak emititzen dituzten zeinuak ezagutu eta aztertze behar diren tresnak menderatzea, pertsonaiaren eskakizunen arabera egokitzeko edo aldatzeko.
- Pertsonaiaren sorkuntza plastikoaren kontzeptuak eta oinarriak, janzkera eszenikotik abiatuta.
- Janzkera eszenikoaren eboluzioa garai desberdinetan, eta horren lotura jantzien eboluzioarekin.
- Pertsonaiaren jantzien azterketaren hastapenak ikuskizunaren kontzepzioan, aktorearen ikus- eta plastika-adierazpen gisa eszena barruan.
- Janzkera eszenikoa egiteko erabiltzen diren material eta tekniken oinarriko ezagutza.
- Jantziaren eta modaren historiaren hastapenak.

Konpetentziak:

Ikasleak gai izan behar du:

- Jantzien eboluzioa ezagutzea, baita historian zehar jantziak izan duen funtzio soziala ere.
- Ezagutu eta aztertzea janzkeraren eboluzioa eta jantzi eszenikoaren funtzioa garai desberdinetako ikuskizunetan.
- Janzkera aztertu eta ulertzea alderdi funtzional eta semiotikoei dagokienez, eta ekintza eszenikoarekin lotzea.
- Janzkera eta antzerki- edo dantza-ikuskizun baten eszenaratzea definitzen duten gainerako elementu kontzeptual eta estetikoak erlazionatzea.
- Ezagutzea janzkera eszenikoko materialen diseinuan eta erabileran zein diren joera adierazgarrienak eta horien balio adierazlea eszenaratzean eta pertsonaia dramatikoak osatzean.

Ebaluazio-irizpideak:

Ebaluazioan, ikasleak helburu hauek lortzeko duen gaitasuna baloratuko da:

- Garai historiko desberdinerako estiloak eta moda nagusiak ezagutzea, formak, ehunak eta erabilitako janzki eta osagarrien koloreak.
- Historian zehar jantzi eszenikoak izan duen funtzioa ezagutu eta aztertzea.
- Kolorea, ehundura, ehuna, argiztapena eta beste elementu plastiko batzuk komunikazio-balioa duten zeinu bezala baloratzea, eta eszenaratzearen gainerako elementuekin erlazionatzea.



- Janzkeraren edukiak aktoreen gorputzak eta aurpegiak emititzen dituzten zeinuekin erlazionatzea.
- Iturri eta euskarri desberdinak erabiltzea pertsonaia baten janzkera ikertzeko.
- Eszenaratzearen estiloaren arabera egitea pertsonaien karakterizazioa.
- Figurinak egiteko modu oinarritzkoan, aintzat hartuta garaia eta eszena-proposamenari dagozkion jantzi motak.
- Konplexutasun handirik ez duten jantzien patroiak egitea.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplikatu dakizkiokeen kompetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoia, kontzeptu teorikoak asimilatzeak eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.